

ARGAZKI
ERAKUSKETA
PREBENTZIOZKO
BEGIRADAK

43

MIRADAS DE
PREVENCIÓN
EXPOSICIÓN
FOTOGRAFICA



*Begirada bakoitza babestu
behar dugun mundu bat da*

*Cada mirada es un mundo
que debemos proteger*



OSALAN
Lerako Seguratasun eta
Osasunerako Eusko Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO, SEGURIDAD SOCIAL
Y EMERGENCIAS



GOBIERNO DE EUSKADI
GOVERNMENT OF THE BASQUE COUNTRY

Gizarte segurantzaren prebentzio-ekintzei buruzko plana

Plan de actividades preventivas de la Seguridad Social

prebentziozko begiradak

Begirada bat mundu bat da, gu harrapatzeko modu bat, gure emozioetara begirako leiho bat. Zer izan daitezke 43 Begirada?

“43 Prebentzio-begirada” Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Mutualia Argazki Lehiaketaren 17 edizioetan parte hartu duten 2.700 argazkiren baino gehiagoren artean jasotako 43 argazkik osatzen dute. Horien bidez, Mutualiak gizartearen begirada finkatu nahi du laneko istripuen eta gaixotasunen problematikan, kontzientziazatuz eta barneratuz, guztion artean, lan-ingurune seguruagoak eta osasungarriagoak lortu behar ditugula.

Istripuen prebentzioaren unibertsaltasuna irudikatzen duen titare eta orratz banaz osatutako argazki sinple batetik hasita goitik behera babestuta, altuera zorabiagarrian edo galdategi bateko salda-jaurtiketen ondoan lan egiten duten pertsonen irudi harrigarrietara, irudien imajinarioa arreta erakartzeko

tresna boteretsua da. Baina arretaren ondoren gogoeta dator. Gogoeta egiten laguntzeko, argazki bakoitzaren ondoan testuak, datuak eta erantzun beharreko galderak agertzen dira. Segurtasuna eta osasuna guneko laneko eguneroko ohituretan kontuan hartu beharreko kontu oso garrantzitsuak dira. Baina egiazki, erakusketari begirada azkar bat emateko behar dugun tartean, Munduan 43 lagun hiltzen dira laneko arrazoiengatik.

Garbi dago argazki edo testu bakoitzak bere horretan ez duela laneko istripu edo gaixotasunik saihestuko, baina prebentzioaren garrantziaz gogoeta egiten eta kontzientziazatzen lagunduko digu, eta horrela, erakusketa honen helburua lortuko dugu.

Begirada bakoitza babestu behar dugun mundu bat da.

43

miradas de prevención

Una mirada es un mundo, una forma de atraparnos, una ventana a nuestras emociones. ¿Qué pueden ser 43 Miradas?

“43 Miradas de Prevención” la componen 43 fotografías recogidas de entre las más de 2.700 fotografías que han participado en las 17 ediciones del Concurso Mutualia de Fotografía sobre Prevención de Riesgos Laborales. Con ellas, Mutualia quiere fijar la mirada de la sociedad en la problemática de los accidentes y enfermedades laborales, concienciando e interiorizando que, entre todos, debemos conseguir entornos de trabajo más seguros y saludables.

Desde una simple fotografía de un dedal y una aguja, que refleja la universalidad de la prevención de los accidentes, hasta imágenes impactantes de personas trabajando, protegidos de los pies a la cabeza, a alturas de vértigo o junto a proyecciones de caldo en una fundición, el imaginario visual es una poderosa herramienta para captar la atención. Pero después de la atención viene la reflexión.

Para ayudar en esta reflexión, cada fotografía viene acompañada de diferentes textos, datos y preguntas que deberemos plantearnos. La seguridad y la salud son cuestiones lo suficientemente importantes como para que las tengamos presentes en nuestras rutinas diarias de trabajo. Pero la realidad es que durante el tiempo que echamos un rápido vistazo a la exposición, en el mundo han muerto 43 personas por causas laborales.

Está claro que cada fotografía o texto por sí solos, no evitarán un accidente o enfermedad laboral, pero sí nos ayudará a la reflexión y concienciación sobre la importancia de la prevención, y con ello cumpliremos el objetivo de esta exposición.

Cada mirada es un mundo que debemos proteger.



Zure lanean, EZER EZ da ZU seguru egotea eta ZU osasuntsu egotea baino garrantzitsuagoa.

Garbi izan.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) Europako datuetan oinarrituta, laneko gaixotasunen intzidentzia horien eraginpean dauden 1.000 pertsonatik 2,5 eta 5,4 bitartekoa da, aztertutako jarduera-adarraren arabera. Horrek esan nahi du minbizia guztiek baino intzidentzia handiagoa daukatela eta gaixotasun koronarioen intzidentziatik oso gertukoa dela.

En tu trabajo, NADA es más importante que TU seguridad y TU salud.

Tenlo claro.

Según datos de la OIT para Europa, la incidencia de las enfermedades profesionales oscila entre el 2,5 y el 5,4 por 1.000 personas expuestas, según rama de actividad considerada, lo que las ubica en una incidencia mayor que todos los cánceres y muy cercana a la incidencia de las enfermedades coronarias.

Segurtasun-arauak batez bestekoak baino hobeto zaintzen dituztela uste dutenen % 90aren parte zara?

HSEk, Erresuma Batuko Osasun eta Segurtasun Zuzendaritzak kalkulatu zuenez, 10 enplegatzailetatik 9k laneko segurtasunaz eta osasunaz kezkatzen zirela ziurtatzen zuten arren, 10 kasutatik 4tan bakarrik betetzen zituzten erakunde horrek langileen benetako inplikaziotzat jotzen zituen gutxieneko baldintzak.

¿Pertenece a ese 90% que considera que cumple mejor las normas de seguridad que la media?

El HSE, Dirección de Salud y Seguridad del Reino Unido, calculó que si bien 9 de cada 10 empleadores aseguraban preocuparse por la seguridad y salud en el trabajo, solo en 4 de cada 10 casos cumplían las condiciones mínimas a partir de las cuáles el organismo consideraba que podía hablarse de verdadera implicación de los trabajadores y trabajadoras.





Lan-arriskuen prebentzioko lehen urratsak.

Neolitoan (K.a. 4000. urtea baino lehen), egungo Belgikako lurretan, silize-harrobi baten lurpeko galeria bat eraitsi zela jasota dago. Lan-istripu bati buruzko lehen erreferentzia ezaguna da hori. K.a. 1770. urte inguruan, Babilonian, historiako lehen lege-kodea egin zen. Kode horretan, 282 lege agertzen dira; horietako batzuk eraikuntzako istripuei eta horien erantzukizunei buruzkoak dira. Horrela, adibidez, etxe-eraikitzaileei heriotza-zigorra ezartzen zitzairen, etxea erori eta ondorioz jabea hiltzen bazen. Gaixotasunen eta lan-jardueren arteko lotura antzinako Greziaren garaitik ezagutzen da: Hipokratesek (K.a. IV. mendea) berunak galena-meatzetako meatzariengan zuen eragin kaltegarria aztertu zuen. Erroman, elkargoak (gremioak) sortu ziren, elkarri laguntzeko elkarte moduan.

Primeros pasos de la prevención de riesgos laborales.

En el periodo Neolítico (anterior al 4000 a. C.), se tiene descrito el derrumbamiento de una galería subterránea de la cantera de sílice, en terrenos de la actual Bélgica. Se trata así, de la primera referencia conocida sobre un accidente de trabajo. Sobre el año 1770 A.C., en Babilona, encontramos el primer Código Legal donde figuran 282 leyes, algunas de las cuales se refieren a los accidentes en la construcción y sus responsabilidades. Así, por ejemplo, se castigaba con la pena de muerte al constructor que edificase una casa si ésta se derrumbase, causando la muerte al dueño. La relación entre enfermedades y distintas actividades laborales ya era conocida desde la antigua Grecia: Hipócrates (s.IV a.c) estudió los efectos nocivos del plomo en los mineros de la galena. En Roma se conformaron colegios (agremiaciones) a manera de asociaciones de ayuda mutua.

Arriskuaren aurreko jarrera aldatzeko lehenengo pausoa ikustea da. Ireki begiak, konturatu zure inguruko arriskuez.

«Laneko arriskuaren pertzepzioari buruzko ebaluazioa» azterketaren arabera (industria-enpresa bateko produkzio-ataletako 185 langilez osatutako lagin batean oinarritzen dena), ohiko produkzio lerroko arriskuen pertzepzioarekin lotutako galderan, %60k arrisku maila atxikia ertaina zela adierazi zuen, % 35ek arrisku maila baxua eta gainerako % 5ak arrisku maila handia. Aldiz, jarduera bereziei buruzko galderetan, % 78k altutzat jo zuen arrisku maila atxikia, % 20k ertaintzat eta % 2ak bakarrik txikitat. Azken urteko lehenengo asistentziak gainbegirata, istripuen % 3 jarduera berezietan gertatu ziren eta % 97 produkzio ildoko ohiko lanean.

Abre los ojos, toma conciencia de los riesgos a tu alrededor.

Para cambiar de actitud ante el riesgo, el primer paso es verlo. Según el estudio "Evaluación de percepción de riesgo ocupacional" (estudio que considera una muestra de 185 personas trabajadoras de las diferentes áreas productivas de una empresa industrial) en la pregunta referida a la percepción de los riesgos en la línea de producción habitual, el 60% identificó un nivel de riesgo medio asociado, el 35% un nivel de riesgo bajo, y el 5% restante un nivel de riesgo alto. En cambio, en las preguntas referidas a las actividades especiales, el 78% consideró como alto el nivel de riesgo asociado, un 20% como nivel medio y sólo el 2% como nivel bajo. Revisadas las primeras asistencias del último año, un 3% de los accidentes ocurrieron en actividades especiales, y un 97% en el trabajo habitual de la línea de producción.





Istripuak saihestu nahi dituzu? Errespetatu prebentzio-arauak. Laneko joan-etorrietan, errepidea zure laneko arriskua da.

Egunerokoan zure enpresan seinaleak errespetatzea edo semaforoa gorri dagoela errespetatzea prebentzioarekin duzun konpromisoaren isla argia da. 2015. urtean, 800dik gora pertsona hil eta 5.000 zauritu ziren lanorduetan gertatutako zirkulazio istripuetan. Enpresek beren laneko arriskuak prebenitzeko planean halako istripuak saihesteko neurriak barne hartu behar dituzte. DGTk, beste ekintza batzuen artean, ibilgailu propioen ordezkotako mugikortasun-aukerak ezagutaraztea eta ematea gomendatzen die enpresei, adibidez: garraiobide publikoak erabiltzea, bizikleta, oinez ibiltzea, etab.

¿Quieres evitar accidentes? Respeta las normas de prevención. Cuando vas y vuelves del trabajo, la carretera es tu riesgo laboral.

Respetar la señalización en tu empresa o respetar un semáforo en rojo en el día a día es el claro reflejo de tu compromiso con la prevención. El año 2015 más de 800 personas fallecieron y más de 5.000 resultaron heridas en accidentes de tráfico en horario laboral. Las empresas deben incluir medidas para evitar estos accidentes, dentro de su plan de prevención de riesgos laborales. Entre otras acciones, la DGT recomienda a las empresas difundir y facilitar opciones de movilidad alternativa al vehículo propio, tales como el uso del transporte público, la bicicleta, trayectos a pie, etc.

Katedral handien garaia.

Erdi Aroan, kofradiak, elkarri laguntzeko elkarteak, istripua izandako langileen kasuez arduratzen ziren. Era berean, erlijio-ordenek langileei laguntzen zieten, karitatezko lan gisa. Obra handiak egiten zirenean (adibidez, elizak, katedralak, monasterioak edo edozein lan publiko garrantzitsu), horiek dokumentatzeko akta asko idazten ziren eta horietan, besteak beste, lan-istripuak zenbatzen ziren. Horren ondorioz, arau espezifikoak ezarri ziren, obrak egiten ziren hirietako alkateen bitartez. 1413 eta 1417 artean, langile-klasearen segurtasuna zaintzeko «Frantziako Ordenantzak» promulgatu ziren. Laneko segurtasuna formalizatzeko lehen aurrerapausoa izan zen hori.

La época de las grandes catedrales.

La edad media, las cofradías, asociaciones de ayuda mutua, atendían los casos de sus trabajadores accidentados. Así mismo, las órdenes religiosas atendían a los trabajadores como obra de caridad. En la construcción de grandes obras, como Iglesias, Catedrales, Monasterios, o cualquier obra pública de importancia, se documentaba con numerosas actas, entre otras se contabilizaban accidentes de trabajo, lo que indujo a que se establecieran normas específicas, a través de los alcaldes de las urbes que las albergaran. Entre 1413 y 1417 se dictaminan las 'Ordenanzas de Francia' que velan por la seguridad de la clase trabajadora, los primeros avances hacia la formalización de la seguridad laboral.





Zure lan premiazkoena bizirik irautea da.

Presak eta lanaldi luzeak faktore erabakigarriak dira istripu askotan. Bizi-baldintzak eta Lan-baldintzak Hobetzeko Europako Fundazioaren txosten baten arabera, jadanik 1990-2000 epean langileen % 50ek baino gehiagok beren zereginak erritmo bizian eta epe justuekin egiten zituzten, bezeroen exijentziek gero eta gehiago eraginda.

Tu trabajo más urgente es seguir vivo.

Las urgencias y jornadas de trabajo prolongadas, son factores determinantes en numerosos accidentes. Según un informe de la Fundación Europea para la Mejora de las Condiciones de Vida y del Trabajo, ya en el periodo 1990-2000, más del 50 % de los trabajadores y trabajadoras realizan su labor a un ritmo elevado y con plazos muy justos, determinados cada vez más por las exigencias de los clientes.

Arrisku ohikoena garbi ikusten dela uste duzu?

Segurtasuna, pauso bakoitzean.

Langileek adierazitako arriskuen kopurua batez beste 2,8koa da. Gehien aipatzen dituzten arriskuen artean, lehenik eta behin, ebakiak eta ziztadak daude, eta gero, kolpeak eta erorikoak (laneko baldintzei buruzko VII. inkesta, 2011).

El riesgo más habitual, ¿crees que se ve tan claro?

Seguridad en cada paso.

El número medio de riesgos señalados por los trabajadores y trabajadoras es de 2,8. Entre los riesgos más nombrados aparecen en primer lugar los cortes y los pinchazos, seguido de golpes y caídas (VII encuesta de condiciones de trabajo 2011).





Laneko istripu eta gaixotasunen prebentzioaren hastapenak, diziplina bezala.

Italiako Berpizkundearen amaieran, Bernardino Ramazziniren «De Morbis Artificum Diatriba» saiakera argitaratu zen (1700). Lan horretan, dozenaka laneko gaixotasun deskribatzen dira (hainbat ogibidetakoak) eta gaur egun Higiene Industrial deritzen diziplinaren sortze-agiritzat jotzen da. Liburuan, hausnarketa hau jasotzen da:

«Aitortu behar dut lanbide batzuek langileei kalte handia eragiten dietela: beren burua mantentzeko eta familia sostengatzeko baliabideen iturritzat hartzen dituzten lanbideetan sarritan oso gaixotasun larriak aurkitzen dituzte, eta landu duten artea madarikatzen dute, bizidunen mundutik urruntzen diren bitartean...».

Los inicios de la Prevención de accidentes y enfermedades profesionales como una disciplina.

En el renacimiento tardío italiano se publica el ensayo 'De Morbis Artificum Diatriba' (1700) de Bernardo Ramazzini, donde se describen decenas de enfermedades profesionales (de distintos oficios) y considerado el documento fundacional de la actual disciplina denominada 'Higiene Industrial'. En el se incluye la siguiente reflexión:

"Deberé confesar que ocasionan no poco daño a los obreros ciertos oficios que desempeñan: donde esperaban obtener recursos para el propio mantenimiento y sostén familiar, hallan a menudo gravísimas enfermedades y maldicen el arte al que se habían dedicado mientras se alejan del mundo de los vivos..."

ZERO ISTRIPU.

Lanaldi bakoitzaren bukaeran ZERO esan ahal izatea.

Lanaren esparrura ekarritako planteamendua da, 1997an Suedian jaio zen Zero Ikuspegia politikan oinarritutakoa eta nazioarteko bide-segurtasuna irauli duena, ikuspegi zuzen eta zorrotz hau erabiliz: bide-segurtasuneko politiketan onar daitekeen helburu bakarra biktima bakar bat ere ez izatea da. Zero Accident Forumeko zutabeak Europako testuingurura eraman dira, PEROSHen bitartez (Partnership For European Research in Occupational Safety and Health), eta proiektu horrek bi helburu dauzka: jardunbide egokien networking-a egitea eta ikerketa sustatzea.

CERO ACCIDENTES.

Poder decir CERO al final de cada jornada.

Planteamiento que se traslada al ámbito laboral, fundamentado en la política de Visión Cero nacida en Suecia en 1997, y que ha revolucionado la seguridad vial internacional con un planteamiento directo y rotundo: el único objetivo admisible en las políticas viales es que no haya ni una sola víctima. Los puntales del Zero Accident Forum se han trasladado al contexto europeo a través del PEROSH (Partnership For European Research in Occupational Safety and Health), con un proyecto que persigue dos tipos de objetivos: un networking de buenas prácticas y fomentar la investigación.





Zure inguruko jarrera ez-seguruak errefusatzen dituzu?

Hainbat azterlanen arabera, enpresaren zuzendaritzak segurtasun-giroa sustatzen badu langileek jokabide segurua izatea eragiten du, buruzagien eta lankideen segurtasun-erantzunak partzialki bultzatuta. Jokabide seguru horrek, oinarritzko arriskuarekin batera, arrisku errealean eragiten du eta horrek, era berean, istripu-tasari eragiten dio.

¿Rechazas los comportamientos inseguros a tu alrededor?

Según diferentes estudios, los efectos del clima de seguridad, favorecido por la dirección de la empresa, fluye hacia la conducta de seguridad de las personas y parcialmente mediado por la respuesta de seguridad de superiores y compañeros. Esta conducta de seguridad, junto con el nivel de riesgo basal influyen en el riesgo real que, a su vez, afecta la accidentabilidad.

Industria Iraultza eta lan-baldintzak gogortzea.

Industria Iraultzak inflexio-puntu bat ezarri zuen laneko ezbeharren aurkako borrokan. Industriaren garapena langileen lan-baldintzak okertzearekin lotuta dago. Horren aurrean estatuek, langileen mugimendu eta erakundeen presiopean, langileak babesteko arau xume batzuk ezarri zituzten. Langileen bi heren baino gehiago emakumeak eta haurrak ziren, 12 ordu baino gehiagoko lanaldiak zituzten eta argiztapen, aireztapen eta osasun baldintza oso eskasak. 1841: Frantziak haurren lana arautu zuen: 8 urtetik aurrera egin ahal izango zuten lan, egunean gehienez 8 orduz, 12 urte bete arte. Lanari buruzko Frantziako lehen legea da hori. Makinek inolako babesik gabe funtzionatzen zuten. 1871. urtean, langileen erdia 20 urte bete aurretik hiltzen zen.

Revolución Industrial y condiciones de trabajo.

La llegada de la Revolución Industrial supone un punto de inflexión en la lucha contra la siniestralidad laboral. El desarrollo industrial va unido al recrudecimiento de las condiciones de trabajo de los trabajadores, obligando a los estados, presionados por los movimientos y organizaciones obreras, a establecer tímidamente normas protectoras. Más de las dos terceras partes de la fuerza laboral eran mujeres y niños con jornadas de más de 12 horas y serias deficiencias de iluminación, ventilación y sanitarias. 1841: Francia regula el trabajo de los niños, a partir de los 8 años, limitándolo a 8 h hasta que cumplieran los 12 años. Es la primera Ley francesa del Trabajo. Las máquinas operaban sin ninguna protección. En el año 1871, el 50 % de las personas trabajadoras moría antes de los 20 años debido a las pésimas condiciones laborales.





Segurtasun arloko lidergoa.

Eredu izatea ez da besteengan eragina izateko modu nagusia, bakarra baizik.

Lidergoa ez da berezkoa edo gaitasun bitxi bat, ikasi, behatu eta neurtu daitekeen zerbait baizik. Arrisku berri eta gero eta ugariagoei buruzko Europako bigarren inkestan (ESENER-2) galdetutako enpresen ia hiru laurdenen arabera (% 73), beren taldeburuei eta taldeetan ardura-postuak dituzten langileei laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeari buruzko prestakuntza ematen diete.

Liderazgo en seguridad.

Dar ejemplo no es la principal manera de influir sobre los demás, es la única.

El liderazgo no es algo innato o un talento extraño, más bien se puede aprender, observar y medir. Casi tres cuartos (73 %) de las empresas encuestadas en la Segunda Encuesta Europea de empresas sobre riesgos nuevos y emergentes (ESENER-2), sostienen que facilitan formación en materia de gestión de la Seguridad y Salud en el Trabajo a los jefes de equipo y al personal con cargos de responsabilidad en sus equipos.

Zer garrantzi ematen diozu zure laneko segurtasunari?

Langile eta buruzagi batzuek ez dute planteatzen prebentzio-neurri zehatzak aplikatzea beharrezkoa den edo ez, obeditu eta arauak betetzera mugatzen dira. Nahikoa al da hori? Argi dago ezetz. Christian et al. egileen ikerketak (2009) erakusten duenez, laneko segurtasun-giroak harreman estuagoa du langileen parte-hartzearekin arauak modu formalean betetzearekin baino. Baina parte-hartze hori ekintzen bidez frogatu behar da. Sarritan, garrantzitsutzat jotzen dugunaren eta gure jarreraren eta erabakien bidez erakusten dugunaren arteko kontraesanak daude.

¿Qué importancia das a tu seguridad en tu trabajo?

Algunas personas trabajadoras y mandos no se plantean realmente si es necesario o no aplicar medidas preventivas concretas, tan solo obedecen y cumplen con las normas, ¿Es suficiente...? Evidentemente no es suficiente. El estudio Christian et al. (2009) revela que el clima de seguridad laboral se relaciona más con la participación que con el cumplimiento formal por parte de trabajadoras y trabajadores. Pero esta participación se tiene que demostra con hechos, a menudo hay contradicciones, entre lo que decimos que es importante y como lo demostramos con decisiones y conductas.





Laneko lehen araudia.

XIX. mendearen amaieran, Britainia Handian, Frantzian, Espainian eta Alemanian, laneko istripuei buruzko araudiak egiten hasi ziren. 1875ean, Frantzian, Laneko Ikuskarien Kidegoa sortu zen, Laneko Higienea eta Segurtasuna modu ofizialean arautzen zituen legearen bitartez. Europan laneko arriskuaren teoria legez jaso ondoren, Suitzan, Alemanian, Ingalaterran, Frantzian eta Italian laneko gaixotasunei buruzko lehen arauak egin ziren –laneko gaixotasunei aurre egin beharra finkatu zen–, eta enpresetan laneko osasuna ezartzeko parametroak definitu ziren.

Primera reglamentación laboral.

A finales del siglo XIX se inicia la reglamentación de accidentes de trabajo en Gran Bretaña, Francia, España y Alemania. 1875, se crea en Francia, el cuerpo de Inspectores de Trabajo, a través de la Ley que reglamenta oficialmente la Higiene y Seguridad del Trabajo. Después de la consagración legislativa de la teoría del riesgo profesional en Europa, se expiden las primeras normas sobre Enfermedad Profesional en Suiza, Alemania, Inglaterra, Francia e Italia, dándose un carácter reparador a las enfermedades profesionales y se establecen los parámetros para la implementación de la salud ocupacional en las empresas.

Zenbat eta gorago igo segurtasunik gabe, orduan eta gogorragoa izango da ererikoa.

Gizarte Segurantzaren Nazioarteko Elkarteak (GSNE), 19 herrialdetako 337 enpresa aztertuta ondorioztatu duenez, laneko arriskuak prebenitzeko inbertitutako euro bakoitzagatik 2,2 €-ko etekina lortzen da, hau da, bikoitza baino handiagoa. Goldman Sachs 2007ko beste txosten baten arabera, lanean segurtasuna eta higieena ondo kudeatzen ez dituzten enpresek ondo kudeatzen dituztenek baino emaitza finantzario kaskarragoak dituzte.

Cuanto más alto subas sin seguridad, más dura será la caída.

La Asociación Internacional de la Seguridad Social (AISS), a partir del análisis de 337 empresas de 19 países, concluye que por cada euro invertido en prevención de riesgos laborales se obtiene un beneficio de 2,2 €, es decir, más del doble. Otro informe de Godlman Sach del año 2007, consideró que las empresas que no gestionan adecuadamente la Seguridad e Higiene en el trabajo presentan peores resultados financieros, que las que sí lo hacen.





Zuretzako babesik onena, ez al dago zeure baitan?

Segurtasunez pentsatu eta jokatu.

«Pertsonak segurtasunez jokatu ahal izatea eta horrela jokatzeko jakitea ez da nahikoa benetan hori egin dezaten. Horrez gain, segurtasunez jokatzeko borondatea izan behar dute, segurtasunez jokatzeko arrazoiak izan behar dituzte edo, gutxienez, segurtasunik gabe jokatzeko baino arrazoi gehiago». Jokabide Segururako Hiru Baldintzen Teoria (Meliá, 2007).

Tu mejor protección, ¿No está en tu cabeza?

Piensa y actúa con seguridad.

“No es suficiente con que las personas puedan comportarse de modo seguro y sepan como comportarse de modo seguro para que de hecho lo hagan. Además, las personas necesitan querer comportarse de modo seguro, tener motivos para comportarse de modo seguro, al menos más motivos que para comportarse de modo inseguro”. Teoría Tricondicional del Comportamiento Seguro (Meliá, 2007).

XX. mendea. Teoria bateratuago bat gorpuztu zen.

1900eko urtarilaren 30eko Laneko Istripuen Legearekin eta haren araudiarekin, erantzukizun objektiboa egzteko printzipioa gorpuztu zen (hau da, istripu bat gertatzean, enpresaria da erantzule, istripua bere erruz gertatu ala ez). Lege eta arau multzo oso horren osagarri gisa, industrietan gertatutako istripuak zehaztasun handiagoz ezagutzeko prozedura bat finkatu zen. Zehazki, 1900eko abuztuaren 5etik aurrera enpresek Istripuen Erregistro Liburua eduki beharra ezarri zen. Horri esker, lehen istripu-tasak definitu ziren –gaur egun arte erabili dira– eta ordutik aurrera estatistika erlatiboki fidagarriak egin ahal izan ziren.

Siglo XX. Toma cuerpo una normativa más unificada.

Con la Ley de Accidentes de Trabajo de 30 de enero de 1900 y su reglamentación, toma cuerpo el principio de imputación de responsabilidad objetiva (es decir, ocurrido un accidente, la responsabilidad corre a cargo del empresario independientemente de si tal evento ha ocurrido o no por su culpa). Todo este conjunto legislativo y reglamentario, se complementa con la regulación de un procedimiento para que pueda conocerse con mayor exactitud los accidentes que ocurran en las industrias. Se concretaba en el Libro Registro de Accidentes, obligatorio en las empresas a partir del 5 de agosto de 1900. Esto permitió, junto a la definición de los primeros índices de accidentalidad que se mantienen hasta la actualidad, poder elaborar estadísticas relativamente fiables a partir de ese momento.





Jakitea aurreikusteko eta aurreikustea babesteko.

Ez inprobisatu, informatu eta prestatu.

Azken bi urteetan, lantokien erdiak baino gehiagok (% 61,3) segurtasunari eta lanari buruzko prestakuntza-jardueraren bat egin du. Enpresetan segurtasuna eta osasuna kudeatzeari buruzko inkesta nazionala (EKIN, 2009), LSHIN.

Saber para prever y prever para proteger.

No improvises, infórmate y fórmate.

Más de la mitad de los centros de trabajo ha realizado alguna actividad formativa sobre seguridad y salud en los dos últimos años (61,3%). Encuesta nacional de gestión de la seguridad y la salud en las empresas (ENGE 2009) INSHT.

Inoiz izan al duzu laneko istripurik? Nola saihestu zitekeen?

Europar Batasuneko enpresek urtean 143 milioi lanegun inguru galtzen dituzte laneko istripuen ondorioz. «Causes and circumstances of accidents at work in the EU». Lantokien % 21,5ean laneko istripuak eta/edo gaixotasunak erregistratu dira azken bi urteetan. Enpresetako segurtasunaren eta osasunaren kudeaketari buruzko inkesta nazionala (EKIN, 2009), LSHIN.

¿Alguna vez has sufrido un accidente laboral? ¿Cómo se podría haber evitado?

Las empresas de la Unión Europea pierden al año unos 143 millones de jornadas por accidentes de trabajo. “Causes and circumstances of accidents at work in the EU». En el 21,5% de los centros se han producido accidentes de trabajo y/o enfermedades profesionales en los últimos dos años. Encuesta nacional de gestión de la seguridad y la salud en las empresas (ENGE 2009) INSHT.





Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateak, 100 urte baino gehiago eboluzionatzen.

1900ean Istripuen Legea argitaratuta, enpresariaren erantzukizun objektiboa ezarri zen eta, ondorioz, patroiak istripua izan zuten langileei kalte-ordaina eman behar zien, istripua enpresariaren erruz izan ala ez. Hurrengo bi urteetan, lehenengo laneko istripuen arloko patroien mutualitateak sortu ziren. Horien artean, La Previsora zegoen; gerora, Mutua Vizcaya Industrial eta Pakearekin elkartu eta Mutualia sortu zen. Ia hasieratik, mutualitateek arriskuen prebentzioa lantzeari ekin zioten, prebenitzea sendatzea baino hobea dela baieztatu eta frogatzen duen aseguru-etxeen printzipio zaharrari jarraikiz. Horrela, mutualitateak hasierako jardueretatik –hau da, istripua izandakoei laguntza medikoa ematea eta haiei eta haien onuradunei prestazio ekonomikoak ordaintzea–, istripuak saihesteko jarduerak egitera igaro ziren.

Mutuas de accidente de trabajo y enfermedad profesional.

Con la publicación en 1900 de la Ley de accidentes se instaura la responsabilidad objetiva del empresario que obliga a indemnizar a los personas accidentadas con independencia de la existencia de culpa empresarial. En dos años nacieron las primeras Mutuas, entre ellas La Previsora, de cuya fusión con Mutua Vizcaya Industrial y Pakea surgió Mutualia. Las Mutuas se ocupaban de la prevención de los riesgos, dentro del ya viejo principio asegurador que afirma que es mejor prevenir que curar. Así, se pasa de las primeras actividades de las Mutuas, esto es, la asistencia médica a los accidentados y pago de prestaciones económicas a los mismos y a sus beneficiarios, a una nueva actividad tendente a evitar que los accidentes se produzcan.

Hautu segurua, segur aski ez da azkarrena eta errazena izango, baina epe luzera, gutxien kostako zaizuna da.

Enpresetako arduradunen % 87,7k ez du bere lantokian gertatutako istripuek eragindako kostu ekonomikoei buruzko daturik; 250 langiletik gorako enpresak dira gai horren inguruan sentsibilizatuen daudenak. Hala eta guztiz ere, enpresa handien % 27k baino ez ditu istripuen eragin ekonomikoari buruzko datuak. Enpresetako segurtasunaren eta osasunaren kudeaketari buruzko inkesta nazionala (EKIN, 2009), LSHIN.

La elección segura, seguro no será la más rápida y sencilla pero, a la larga, es la que menos te cuesta.

El 87,7% de los responsables de empresa no dispone de datos sobre los costes económicos de los accidentes producidos en su centro de trabajo, siendo el segmento de empresas más sensibles hacia este tema el de las que cuentan con mas de 250 trabajadores. A pesar de ello, sólo el 27% de las grandes empresas dispone de datos sobre la repercusión económica de los accidentes. Encuesta nacional de gestión de la seguridad y la salud en las empresas (ENGE 2009) INSHT.





Gure gorputza makina harrigarria da, baina mugak ditu.

2014ko datuen arabera, gainesfortzu fisikoek istripu guztien % 39,8 eragin zituzten. Horren atzetik, alde nabarmenarekin, honakoek eragin zituzten istripu gehien: objektuen kontra talka egiteak (% 24,5) eta mugitzen ari zen objektu baten kontra talka egiteak (% 13,4). Europako zenbait azterlanek dudarik gabe frogatu dute bizkar, lepo eta goiko gorputz-adarretako lesioak osasun-arazo bat direla eta lan-kostu handiak eragiten dituztela; gero eta handiagoak, gainera. Eskura dauden lesio-mota horiei buruzko datuen arabera, kostua Europako BPGaren % 1,5 eta % 2 bitartekoa da.

Nuestro cuerpo es una máquina extraordinaria, pero tiene sus límites.

Según datos de 2014, los sobreesfuerzos físicos acumularon el 39,8% de los accidentes, seguido a distancia de choques contra objeto inmóvil 24,5% y choque contra objeto en movimiento, que ocasionaron el 13,4% de los accidentes. Estudios europeos demuestran fehacientemente que las lesiones de espalda, cuello y extremidades superiores son un problema sanitario y suponen costes laborales de gran magnitud, que no dejan de aumentar. Las cifras disponibles relativas a este tipo de lesiones cifran el coste entre el 1,5% y el 2% del PIB europeo.

Istripu-tasaren eta laneko gaixotasunen etorkizuna.

2015ean, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak 20 urte bete zituen. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea indarrean izan zen lehen urteetan, ezbeharren tasa % 25 inguru handitu zen (1996tik 2000ra). Legearen ezarpena hedatzearen ondorioz, 2001 eta 2013 artean ezbeharren tasak behera egin zuen nabarmen. Azken urteotan, berriz ere gora egiten hasi da.

Aldaketa-garaiak bizi ditugu, Laneko Arriskuen Prebentzioari beste bultzada bat emateko eta haren etorkizuna birplanteatzeko unea da, bai eta arrisku berri hauek egokitze unea ere: lehiakortasunaren handitzea, malgutasun-eskariak, epeen txikitzea (arrisku psikosozialak), nahasmendu muskulu-eskeletikoaren etengabeko ugartzea, teknologia berriei lotutako arrisku berrien agerpena.

Futuro de la accidentalidad y las EP.

En el 2015 se celebraron 20 años de la ley de Prevención de Riesgos Laborales. En los primeros años de vigencia de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales el aumento de la siniestralidad fue del orden del 25% (1996 a 2000). Su progresiva implantación favoreció una considerable disminución entre 2001 y 2013. En los últimos años se ha producido un repunte.

Vivimos tiempos de cambio, es el momento de dar un nuevo impulso y replantearse el futuro de la PRL, adaptarse a nuevos riesgos emergentes, aumento de la competitividad, exigencias de flexibilidad, disminución de plazos (riesgos psicosociales), aumento progresivo de los trastornos musculoesqueléticos, aparición de nuevos riesgos asociados a nuevas tecnologías.





Gazteok ez zaudete bigarren planoan istripuei dagokienez.

Aintzat hartu segurtasuna, ez da kopla bat.

Estatistikek erakusten dutenez, 18 urtetik 24ra bitarteko gazteen artean laneko istripuak helduagoen artekoen bikoitzak dira. Mutualiak 1.200 elkarrizketatan oinarrituta egindako azterketa baten arabera, gazteen % 11k ez ditu ez segurtasun-arauak errespetatzen, ezta laneko arriskuen prebentzioa aintzat hartzen ere. Laborategietako eta tailerretako praktiketan, % 24,1ek ez du babes indibidualeko ekiporik erabili, eta horietatik % 15,7ren arabera, arriskuak eta betebeharrak ez zeuden adierazita.

Los jóvenes no estáis en segundo plano de los accidentes.

Tómate en serio la prevención, no es ninguna historieta.

Las estadísticas muestran que los jóvenes, de edades comprendidas entre los 18 y los 24 años de edad, sufren más del doble de accidentes de trabajo que otros adultos mayores. Según un estudio elaborado por Mutualia a partir de 1.200 entrevistas, el 11% de las y los jóvenes, ni respeta las normas de seguridad, ni se toma en serio la prevención de riesgos laborales. Durante las prácticas en laboratorios y talleres, el 24,1% no ha utilizado equipos de protección individual, y para el 15,7% de ellos, no se encontraban señalizados los riesgos y obligaciones. Entre el 22% y 25% están convencidas de que no se pueden cumplir con rigor las normas de prevención y que las medidas preventivas retrasan el trabajo.

Emakumeen lana seguruagoa eta erosoagoa dela pentsatzen dugu oraindik?

EBko azterketa batek adierazten duenez, lanaren sexuen araberako banaketak emakumeen osasunean eragiten du. Izan ere, emakumeen lanek ezaugarri zehatz batzuk dituzte: errepikakorrak izatea, monotonia, ahalegin estatikoa edo aldi berean hainbat zeregin izatea. Gainera, espazioak, lantaldeak eta ordutegiak gizonen batez besteko gorpuzkerarekin eta bizimoduarekin lotuta diseinaturik daude.

¿Todavía pensamos que el trabajo de las mujeres es más seguro y confortable?

Un estudio de la UE señala que la división del trabajo por género afecta a la salud de las mujeres, ya que los trabajos de las mujeres presentan unas características específicas como son la repetición, monotonía, esfuerzo estático o múltiples responsabilidades simultáneas. Además, los espacios, los equipos de trabajo y los horarios están diseñados en relación con el cuerpo masculino medio y el estilo de vida de los hombres.





Adina ez da laneko arrisku bat izango, gaitasunen aldaketa ondo kudeatzen bada.

Bai alderdi fisikoetan bai psikologikoetan, pertsonen gaitasunak aldatzen doaz eta adinaren berezko gabezia jakin batzuk ez dira beti esperientziaren bidez konpontzen. Hori dela-eta, enpresetan zahartzea kudeatzeak garrantzi berezia du. Berrogeita hamabost urtetik gorako langileen laneko istripuak, proportzioan, beste edozein taldetakoak baino gehiago hazi ziren 2013an eta 2014an, eta 2010eko kopuru absolutuak gainditzeraino iritsi ziren. EB-27ko biztanleria aktiboaren joerek adierazten dutenez, 55 eta 64 urte arteko adin-taldea % 16,2 haziko da 2010 eta 2030 bitartean (9,9 milioi pertsona).

La edad no será un riesgo laboral, si se gestiona el cambio de capacidades.


Tanto en aspectos físicos como psicológicos, las capacidades de las personas van evolucionando y no siempre se suplen determinados déficits propios de la edad con la experiencia. Por esta razón, toma una especial relevancia la gestión del envejecimiento en las empresas. Los accidentes de trabajo en los personas de más de 55 se incrementaron en 2013 y 2014, proporcionalmente más que en el resto de grupos y llegando, incluso, a superar las cifras absolutas de 2010. La tendencia de la población activa en la UE-27 apuntan a que el grupo de edades de 55 a 64 años aumentará en un 16,2 % (9,9 millones) entre 2010 y 2030.

Laneko istripu eta gaixotasun guztiak saihestu daitezke, arriskua identifikatu eta neurriak hartu behar dira.

Europar Batasuneko enpresek urtean 143 milioi lanaldi inguru galtzen dituzte laneko istripuen ondorioz, «Causes and circumstances of accidents at work in the EU»-ren arabera. Zentroen % 21,5ean laneko istripuak eta/edo gaixotasunak gertatu dira, azken bi urteetan, Enpresetan Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeari buruzko inkesta nazionalaren arabera (EKIN, 2009), LSHIN.

Todo accidente y enfermedad profesional se pueden evitar, hay que identificar el riesgo y tomar medidas.

Las empresas de la Unión Europea pierden al año unos 143 millones de jornadas por accidentes de trabajo, según "Causes and circumstances of accidents at work in the EU". En el 21,5% de los centros se han producido accidentes de trabajo y/o enfermedades profesionales en los últimos dos años, según la Encuesta nacional de gestión de la seguridad y la salud en las empresas (ENGE 2009) INSHT.





Zure lanean arriskurik ez dela uste duzu?

Istripuak ez dira, nahitaez, espero ditugunean gertatzen. Segurtasun-sentipen faltsu batek jendea arriskuei jaramon ez egitera eraman dezake. 2014tik hona, baja eragin duten laneko istripuen %50 baino gehiago zerbitzu-sektorean izan dira, nahiz eta hor arriskuak beste sektore batzuetan baino txikiagoak direla suposatzen den. Espainian, bulegoetan, urtean 43.000 istripu baino gehiago gertatzen dira. Horietako ia 1.500 larriak dira, eta gutxi batzuek heriotza ere eragiten dute.

¿Piensas que en tu trabajo no hay riesgos?

Los accidentes no ocurren necesariamente cuando se espera. Una falsa sensación de seguridad puede hacer que la gente ignore los riesgos. Desde el año 2014, más del 50% de los accidentes laborales con baja se dan en el sector servicio, donde se supone que los riesgos son menores que en otros sectores. Los accidentes laborales acaecidos en las oficinas llegan a superar los 43.000 casos al año en España, de los cuales casi 1.500 son graves y alguno incluso mortal.

Arrisku agerikoenak ergonomikoak dira, eta hain agerian ez daudenak psikosozialak.

Gihar eta hezurretako zenbait arrisku dituztela adierazi duten zentroen %85ek prebentziozko neurriak dituztela diote, hala nola, pisuak jasotzeko eta mugitzeko ekipamendua; mugimendu errepikakorrak edo gainkarga fisikoa murrizteko txandaketa sistema; jarrera deseroso edo estatikoak dituztenei etenaldi ugari egiteko aukera eskaintzea, edo beharrezko ekipamendu ergonomikoa erraztea. Arrisku psikosozialei dagokienez, berriz, zentroetako %23k adierazi dute ez dutela informaziorik edo tresnarik horiei aurre egiteko. Hiru alorretan agertzen dira, batez ere, arazoak: sexu-diskriminazioa (%42), langileak bere lanean duen eragin eza (%25) eta lanaldi luzeak edo ordutegi irregulak (% 21).

Los riesgos más visibles son los ergonómicos y los menos los psicosociales.

El 85% de los centros que señalan la presencia de distintos riesgos musculoesqueléticos dicen disponer de medidas preventivas, tales como equipamiento para levantar y mover pesos, rotación en tareas para reducir los movimientos repetitivos o la sobrecarga física, pausas frecuentes para quienes tienen una postura incómoda o estática o facilitan el equipamiento ergonómico. En cuanto a los riesgos psicosociales, un 23% de los centros señala que carecen de información o herramientas para abordarlos, sobre todo en lo que se refiere a la discriminación por sexo (un 42%), la falta de influencia de la persona trabajadora sobre su trabajo (25%) y las largas jornadas u horario irregular (21%).





Eutsi Segurtasunari!, ez utzi istripura eraman zaitzaten.

Oso ohikoa da fisikoki mugakideak diren enpresekin topo egitea, antzeko ezaugarriak dituzten plantillekin, baina istripuak prebenitzeko edo laneko kalitaterako jarduera erabat desberdinekin. Batzuek ez dute istripurik, ondo egindako lanaz arduratzen direlako, eta besteek ez dakite zenbat dituzten ere, ez baitira gutxi izaten. Azken horiek, lan-istripuak ez ezik, kalitate-akatsak ere badituzte beren produktuetan, matxurak, erreklamazioak eta nolabaiteko lotura duten disfuntzionaltasun multzo bat, eta askotan horiek ez dira argitara ateratzen, ez baitira aztertzen. Berez, enpresa bere kudeatzaileek nahi dutena izango da, legezko eskakizunak betetze hutsetik harago. *Causalidad de los accidentes de trabajo* [Lan-istripuen kausalitatea]. *David C. Berruezo Varela*.

¡Agárrate a la Seguridad!, no dejes que te arrastren al accidente.

Es muy frecuente encontrarse con empresas, colindantes físicamente, con plantillas de similares características, pero con actuaciones radicalmente diferentes ante la prevención de accidentes o la calidad en el trabajo. Unas realmente no tienen accidentes, porque se preocupan por el trabajo bien hecho y las otras no saben ni los que tienen, que no suelen ser pocos. Estas últimas no sólo tienen accidentes de trabajo, sino también defectos de calidad en sus productos, averías, reclamaciones y todo un conjunto de disfuncionalidades que están en cierto modo interrelacionadas y que muchas veces no saltan a la luz porque no se analizan. En realidad, la empresa será lo que sus gestores quieran que sea, más allá del mero cumplimiento de las exigencias legales. *Causalidad de los accidentes de trabajo*. *David C. Berruezo Varela*.

Gehiegizko konfiantza edo errutinaren arriskua?

Askotan, inolako azalpenik gabe gertatzen diren istripuei aurre egin behar izan diegu, nahiz eta enpresa jakin bateko pertsonak urteak daramatzaten istripu horiek izaten, egunero hainbat aldiz. Hortaz, zergatik gertatzen dira istripuak? Non dago oinarritzeko kausa? Galdera horren aurrean, ohikoa da “gehiegizko konfiantzaz aritu zen” esaldia entzutea. Orduan, zergatik ematen dizkiogu “gehiegizko konfiantzari” istripuen arrazoiak? Funtsean, hori inguruko arriskuen pertzepzio-eta identifikazio-arazo batekin nahastu ohi delako egiten dugu; izan ere, lana errutinazkoa eta errepikakorra izan badaiteke ere, lana egiten den giroa dinamikoa eta aldakorra da. Horregatik, nahikoa da aldagairen bat aldatzea, arrisku berriak sor ditzakeen agertoki berri bat sortzeko. *Segma. Work on top.*

¿Exceso de confianza o el peligro de la rutina?

Muchas veces nos hemos enfrentado a accidentes que sin explicación alguna ocurren pese a que las personas de determinada empresa lo llevan realizando años y varias veces cada día. Entonces ¿por qué ocurren los accidentes?, ¿dónde se encuentra la causa básica? Frente a esta pregunta, es común escuchar la frase “Pasó por exceso de confianza”. ¿Entonces, por qué adjudicamos al “exceso de confianza” las causas de los accidentes? Básicamente lo hacemos porque suele confundirse ésta con un problema de percepción e identificación de los riesgos del entorno, ya que, si bien el trabajo puede ser rutinario y reiterativo, el ambiente en el que se realiza el trabajo es dinámico y cambiante. Por ello basta que alguna variable cambie para que se genere un escenario nuevo que pueda generar nuevos riesgos. *Segma. Work on top.*





Absentzien kudeaketa, enpresa baten osasunaren isla.

Lanpostura ez joatea ez da berez arazo bat, baizik eta beste barne-arazo batzuen ondorioa; konpondu dezagun jatorria, ez ondorioa. Identifikatzen dugunaren arabera, estrategia oso desberdinak erabiliko ditugu. Hala, absentziak enpresaren gainerako politiken ondorio gisa hartu dituzten eta barne-aldaketetara bideratu diren enpresak dira beren erakundeetan arazo hori konpontzeko gai izan direnak. Enpresa batek ezin du bere plantilla aldatu, baina bera alda daiteke, bere politikekin eta enpresa-kulturarekin. *Absentzien Prebentziorako eta Kudeaketarako Gida. Mutuaia.*

Gestión de ausencias, el reflejo de la salud de una empresa.

Las ausencias al puesto de trabajo no son un problema en sí mismo, sino la consecuencia de otros problemas internos, resolvamos el origen, no la consecuencia. Según lo identifiquemos, usaremos estrategias claramente distintas. Así, aquellas empresas que han considerado las ausencias, como una consecuencia al resto de políticas de la empresa, y se han enfocado en modificarse internamente, son las que han sido capaces de resolver este problema en sus organizaciones. Una empresa no puede cambiar su plantilla, pero sí puede cambiar ella, con sus políticas y su cultura empresarial. *Guía para la Prevención y Gestión de Ausencias. Mutuaia.*

Segurtasunari emanak!, Noiz gogoratzen gara haietaz?

Segurtasunaren arloan adibidearekin lideratzea da gakoa. “Lidergo berriak ekintzarako konpromisoa hartzen du, jarraitzaileak lider bihurtzen ditu, eta horiek aldaketarako eragile bihur ditzake. Horri “lidergo eraldatzailea” esaten diogu, eta maiz aipatuko dugu kontzeptu hori”. *BENNIS, Warren eta NANUS, Burt. Líderes. Las cuatro claves del liderazgo eficaz* [Liderrak. Lidergo efikazaren lau gakoak].

¡Colgados por la Seguridad!, ¿Cuándo nos acordamos de ellos?

Liderar con el ejemplo en Seguridad es la clave. “El nuevo liderazgo compromete a la gente a la acción, transforma seguidores y seguidoras en personas con liderazgo, y puede convertir a estas en agentes de cambio. Esto lo denominamos “liderazgo transformativo”, y nos referiremos con frecuencia a este concepto” *BENNIS, Warren y NANUS, Burt. Líderes. Las cuatro claves del liderazgo eficaz.*





Enpresen etorkizuna enpresa osatzen dutenen osasunak baldintzatzen du.

1997an Laneko Osasuna Sustatzeko Europako Sarea (ENWHP) erakundeak Luxenburgoko adierazpena sortu zuen. Bertan, enpresako langileen osasuna modu egokian kudeatzeko oinarritzko ekintza-printzipioak eta erreferentzia-markoa ezartzen dira. Prebentzioaren alorrean, osasuna ez da soilik min edo gaixotasun eza, baizik eta ongizate fisiko, mental eta sozial osoa ere. Laneko osasunaren sustapena edo osasunaren kudeaketa partekatua kontzeptu berria da, eta laneko arriskuen prebentzioko araudia betetzea baino harago doa. Arrisku-faktoreengan eragiten du, horiek murriztuta, baita langileen ongizate fisiko, mental eta sozial osoan ere. *Zer da osasunaren kudeaketa partekatua? Mutualia.eus*

El futuro de las empresas depende de la salud de quienes las forman.

En 1997 la Red Europea de Promoción de la Salud en el Trabajo (ENWHP) elaboró la Declaración de Luxemburgo, un documento en el que se establecen los principios básicos de actuación y el marco de referencia de una buena gestión de la salud de la plantilla en la empresa. En prevención, salud no es solo ausencia de daño o enfermedad, sino también un estado de completo bienestar físico, mental y social. La promoción de la salud en el trabajo o gestión compartida de la salud es un nuevo concepto que va más allá del cumplimiento de la normativa de prevención de riesgos laborales. Actúa sobre los factores de riesgo, reduciendo los mismos, así como sobre el bienestar físico, mental y social de la gente. *¿Qué es la gestión compartida de la salud? Mutualia.eus*

Segurtasuna eta osasuna pribilegio izan daitezke?

Munduko ETE eta mikroenpresa guztien %9k baino ez du egiten lan ekonomia formalean. Enplegua duten munduko biztanleen %60k ekonomia informalean egiten du lan, askotan sektore ekonomiko desberdinetako enplegu arriskutsuenetan, eraikuntza eta nekazaritza barne. Ekonomia informaleko lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak prebenitu daitezke eta prebenitu behar dira. Horretarako, Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) arreta berezia jartzen du ekonomia informaleko pertsonen eta enpresen arazo horiei buruzko sentsibilizazioan, kasu gehienetan ez baitute uste laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea lehenetsia denik. *Plataforma de recursos de trabajo decente para el desarrollo sostenible (OIT)* [Garapen iraunkorrerako lan egokiko baliabideen plataforma (NLE)]

¿Pueden ser la seguridad y la salud un privilegio?

Sólo el 9% de todas las pymes y microempresas en el mundo operan en la economía formal. El 60% de la población mundial que tiene un empleo, trabaja en la economía informal, a menudo lo hace en los empleos más peligrosos de los distintos sectores económicos, incluidos la construcción y la agricultura. Los accidentes de trabajo y las enfermedades profesionales pueden y deben prevenirse en la economía informal. Para ello, la Organización Internacional del Trabajo (OIT) presta especial atención a la sensibilización sobre estos problemas de las personas y las empresas de la economía informal, que, en la mayoría de los casos, no consideran la mejora de la Seguridad y Salud en el Trabajo como una prioridad. *Plataforma de recursos de trabajo decente para el desarrollo sostenible (OIT)*





Lan osasungarriak: Arin dezagun zama.

Europa osoko milioika langilek lanarekin lotutako nahasmendu muskuloeskeletikoak (NME) dituzte. Bostetik hiruk, gutxi gorabehera, NMEa nozitzen dutela jakinarazten dute. Mota ohikoenak bizkarreko mina eta goiko gorputz-adarretako minak dira. Faktore fisikoek, antolakuntzakoek, psikosozialek eta indibidualek lagundu dezakete horiek garatzen. Arrisku berriei eta indartzen ari diren arriskuei buruzko 2019ko Europako inkestaren arabera, EB-27n sarrien identifikatu den arrisku-faktorea eskuen edo besoen mugimendu errepikakorra da (establezimenduen %65ek adierazi dute), eta, ondoren, denbora luzez eserita egotea (%61), pertsonak edo karga astunak igotzea edo lekualdatzea (%52), aldi baterako presioa (%45) eta jarrera mingarriak edo nekagarriak (%31). *EU-OSHA kanpaina 2020-2022.*

Trabajos saludables: Relajemos la carga.

Millones de personas trabajadoras en toda Europa padecen trastornos musculoesqueléticos relacionados con el trabajo (TME). Aproximadamente tres de cada cinco, comunican sufrir TME. Los tipos más comunes son: el dolor de espalda y los dolores en las extremidades superiores. Los factores físicos, organizativos, psicosociales e individuales pueden contribuir a su desarrollo. Según la encuesta europea de empresas sobre riesgos nuevos y emergentes de 2019, el factor de riesgo identificado con mayor frecuencia en la UE-27 es el movimiento repetitivo de manos o brazos (señalado por el 65% de los establecimientos), seguido de: permanecer sentados durante largos periodos de tiempo (61%), la elevación o desplazamiento de personas o cargas pesadas (52%), la presión temporal (45%) y las posturas dolorosas o extenuantes (31%). *Campaña EU-OSHA 2020-2022.*

Segurtasunarekin, hobe da zure bizitzako minutu bat galtzea, minutu batean zure bizia galtzea baino.

Azterlan askok erakusten dute arriskuaren kalkulua prozesu konplexua izan daitekeela. Honako faktore hauen arabera da: arriskuari buruzko informazioa zer testuingurutan agertzen den eta hautematen dituzten pertsonen ezaugarri indibidualak eta kulturalak. Parte hartzen duten beste faktore batzuk onargarritasun maila, arriskuei lotutako onurak eta kontrol maila dira. Jarduera bat gustuko baldin badugu, arrisku txikia eta onura handia egotziz epaituko dugu, eta desatsegina baldin bazaigu, guztiz kontrakoa gertatuko da. Bestalde, kontrol sentimenduak arriskua gutxiesten du, adibidez, ibilgailu bat gidatzea versus bidaiari izatea. *Risk perception assessment in different social groups: structural equation model proposal.*

Con Seguridad es mejor perder un minuto de tu vida, que perder tu vida en un minuto.

Existe un gran número de estudios que demuestran que la estimación del riesgo tiende a ser un proceso complejo. Este depende de factores tales como: El contexto en el cual la información sobre el riesgo se presenta y las características individuales y culturales de las personas que los perciben. Otros factores intervinientes son el nivel de aceptabilidad, los beneficios ligados a los riesgos y el grado de control. Si nos agrada una actividad tenderemos a juzgarla con bajo riesgo y alto beneficio y si nos desagrada todo lo contrario. Por otra parte, el sentimiento de control minusvalora el riesgo, por ejemplo, el caso de conducir un vehículo versus ser un pasajero. *Risk perception assessment in different social groups: structural equation model proposal.*





Izan al daiteke garapen iraunkorrik, denontzako lan seguru eta osasungarriarik gabe?

Lan segurua eta osasuntsua funtsezko giza eskubidea da, eta garapen iraunkorraren zutabea. Urtero, 2,78 milioi pertsona hiltzen dira lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondorioz, eta 313 milioik nolabaiteko ondorioak izaten dituzte. Horrek dakarren giza sufrimendu kalkulaezinaz gain, galdutako lanegunak munduko urteko BPGaren ia %4 dira. Mundu mailako erronka bati aurre egiteko premiaren ondorioz, Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) Segurtasuna + Denontzako Osasuna programa garatu zuen. Programa horrek berariaz laguntzen du 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak betetzen, lan egokiari eta hazkunde ekonomikoari (8. GJH), osasun- eta ongizate-helburuei (3. GJH) eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuari (12. GJH) dagokienez. *Eraldaketa positibo baterako mundu-plana (NLE)*

¿Puede haber desarrollo sostenible sin trabajo seguro y saludable para todos?

El trabajo seguro y saludable es un derecho humano fundamental y constituye un pilar del desarrollo sostenible. Cada año, 2,78 millones de personas mueren por accidentes de trabajo y enfermedades profesionales y 313 millones sufren algún tipo de consecuencia derivada de los mismos. Además del incalculable sufrimiento humano que ello supone, los días de trabajo perdidos representan casi un 4% del PIB mundial anual. La necesidad urgente de hacer frente a un desafío mundial, llevó a la OIT a desarrollar el programa Seguridad + Salud para Todos, que contribuye específicamente al cumplimiento de los ODS de la Agenda 2030, relativos al trabajo decente y crecimiento económico (ODS 8), a los de salud y bienestar (ODS 3) y sobre producción y consumo responsables (ODS 12). *Programa mundial para un cambio positivo (OIT).*

Erratzea gizatiarra da, okerrak ezkutatzea ergelkeria, haietatik ez ikastea... barkaezina.

Lan-istripua edo gertakaria ez da halabeharrezko gertaera, halabeharrez gertatzen dena, edo “gertatu behar zuelako”. Behin gertatu denean, horren berri eman behar dugu, haren oinarritzko arrazoiak aztertu, eta gertakari negatibo batetik zerbait positiboa ateratzen saiatu. Ikertzerakoan, oso informazio erreala lortzen dugu zeregin jakin baten arriskuei buruz, eta, horregatik, istripu larriei ez ezik, istripu arinei edo gorabeherei ere erreparatu behar diegu. Ez dezagun ahaztu: istripu arin bat edo gertakari bat, gaur egun, behar diren prebentzio-neurriak hartzen ez baldin badira, istripu larria izango da etorkizunean. *“Istripuen ikerketaren integrazioa” ikastaroa, Mutualiaren Prebentzio Aholkularitza.*

Equivocarse es humano, ocultar los errores una estupidez, no aprender de ellos.... imperdonable.

El accidente o incidente laboral no es un suceso inevitable, algo que suceda inevitablemente, por casualidad o “porque tenía que pasar”. Una vez que se ha producido, debemos comunicarlo, analizar sus causas básicas y tratar de sacar de un hecho negativo algo positivo. Al investigar obtenemos información muy real de los riesgos de una determinada tarea, por ello, no solo debemos centrarnos en los accidentes graves, sino también los leves o incidentes. No olvidemos, que: Un accidente leve o incidente hoy, si no se adoptan las medidas preventivas necesarias, seguro será un accidente grave en el futuro. *Curso “Integración de la investigación de accidentes” Asesoría de Prevención de Mutualia.*





Zure familiarentzat zure lana garrantzitsua da, baina ez al da zure osasuna garrantzitsuena?

Gizakiarentzat familiak garrantzi handia du bere osasunean eta ongizatean. Aldi berean, lana modu konprometituan eta prebentzioz egiteko inspirazio- eta motibazio-iturri ere bada. Enpresen barruan laneko segurtasunaz eta osasunaz arduratzen diren langileek ezin dute familia alde batera utzi Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sisteman jarduerak planifikatzen dituzten bitartean; aitzitik, baliabide hori baliatu behar dute prebentzioaren kultura sustatzeko, kontuan hartuta langileen alderdi emozionala oso lotuta dagoela haien senideekin eta haien pertzepzioarekin eta tolerantziarekin. RSO-SA *Jesús Mauricio Román*.

Para tu familia, tu trabajo es importante, pero ¿no es tu salud lo más importante?

Para el ser humano la familia juega un papel muy importante en su salud y bienestar. A su vez, es una fuente de inspiración y motivación para realizar su labor de forma comprometida y con prevención. El personal encargado de la Seguridad y la Salud en el Trabajo dentro de las empresas no puede dejar de un lado la familia durante la planificación de las actividades en su Sistema de Gestión de Seguridad y Salud en el Trabajo, por el contrario, debe aprovechar este recurso para fomentar la cultura de la prevención teniendo en cuenta que el aspecto emocional de las personas trabajadoras está muy ligado a sus familiares y a la percepción y tolerancia del riesgo. RSO-SA *Jesús Mauricio Román*.

Prebentzioak ez dio istripuari itxaron behar, istripuak bai itxaroten dio Prebentzio faltari.

LAPa (Laneko Arriskuen Prebentzioa) legezko eskakizuna da, eta, beraz, enpresa gehienek uste dute lehenasuna dela betebeharrak horiek betetzea, nahiz eta, gero, kontzeptualki, betebeharrak negozio-balio gisa baino gehiago kostutzat hartzen diren, eta horrek ekintzak finantza-minimoetara mugatzen ditu. Giza kapitalaren kudeaketak eta horrek sortzen dituen ukiezinek, erakundeen aktibo nagusiak, oraindik ez dute garapen nahikorik izan enpresa-balantzeetan. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak (EU-OSHA), Lantokian Osasuna Sustatzeko Proiektuaren bidez, adierazi du 2.5-4.8 euroko etekina lortzen dela osasuna sustatzeko inbertitutako euro bakoitzeko. *Informe Análisis del coste – beneficio en prevención. Observatorio de Recursos Humanos y RR.LL.* [Kostuaren azterketa txostena – prebentzio arloko onura. Giza Baliabideen eta LL.BB.en Behatokia]

La Prevención no debe esperar al accidente, el accidente si espera a la falta de Prevención.

La PRL es una exigencia legal y como tal, la mayoría de las empresas considera que es una prioridad cumplirla, aunque luego conceptualmente tales obligaciones suelen ser entendidas culturalmente más como un coste que como un valor de negocio, lo que viene a limitar las actuaciones a mínimos financieros. La gestión del capital humano y los intangibles que éste genera aún no han tenido suficiente desarrollo en los balances empresariales. La Agencia Europea de Seguridad y Salud en el Trabajo (EU-OSHA), a través de su Proyecto Promoción de la Salud en el Lugar de Trabajo, indica que por cada 1€ invertido en promoción de la salud se obtienen entre 2.5-4.8€ de beneficio. *Informe Análisis del coste – beneficio en prevención. Observatorio de Recursos Humanos y RR.LL.*





Segurtasuna eta osasuna, guztien eta bakoitzaren balio bat.

Prebentzioan benetako interesa duen enpresa batean langileen segurtasuna eta osasuna ez da lehentasun bat, balio bat baizik. Alde nagusia honakoa da: lehentasunak egoeraren arabera aldatzen dira; balioak, berriz, egonkorak dira eta ez daude unean uneko helburuen baldintzapean. Helarazi nahi ditugun mezuak alde batera utzita, zer ideia komunikatzen ditugu oharkabea? Gure jokamoldearekin eta jarrerarekin, arriskuen prebentzioa baloratzen dugula eta berau ezartzeko ahal dugun guztia egiten dugula transmititzen dugu?

La Seguridad y la salud, un valor de todos y de cada uno.

Una empresa en la que exista un verdadero interés por la prevención no tiene la seguridad y salud de las personas trabajadoras como una prioridad, sino como un valor. La diferencia principal radica en que las prioridades cambian según la situación, mientras que los valores son estables en el tiempo y no dependen de los objetivos del momento. Dejando de lado los mensajes que queremos transmitir, ¿qué ideas comunicamos sin darnos cuenta? ¿Con nuestro comportamiento y actitud transmitimos la idea de que valoramos la prevención de riesgos y de que hacemos lo posible por implantarla?

www.mutualia.es



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



mutualia

Gizarte segurantzaren prebentzio-ekintzei buruzko plana



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

DIRECCIÓN GENERAL
DE ORDENACIÓN
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

Plan de actividades preventivas de la Seguridad Social